## Sektorea – Sector 8 IÑARBEGI -MUNAUTZ - LARREMETS -BASAGAR

**Megalitotegi honetan Baztango trikuharririk haundienetakoak aurkitzen dira. Guztira 8 trikuharri, 6 mukuru, zutarri bat eta bi harrespil agertzen dira. Eneolitiko-Brontze Aroetan eraikiak, Baztan erdialdeko trikuharri gune haundi bat osatzen dutelarik.**

Zona megalítica donde se encuentran algunos mayores dólmenes de Baztan. En total 8 dólmenes y 6 túmulos, además de un menhir y dos círculos de piedra. Construídos en los períodos del Eneolítico-Bronce, forman la gran zona central dolménica del centro de Baztan.

**MUNAUTZ TRIKUHARRIA-DOLMEN.** **265**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Erratzu.
**Goi** / Altitud: 830 m.
**Aroa** / Epoca : Neolito. Brontze.

**Deskribapena: Trikuharri labur irekia. Harrizko tumulua 6 m. diametroa da eta lehen trikuarri osoa estaltzen zuen, estalkia ezik. Hau 3 m. luze, 1,70 m. zabal eta 0,33 m. lodi da. 5 harlauzez eraturiko hilgela haundia dauka, errektangularra, 2,60 m. luze eta 0,75 m. zabal dena. Burualdeko harlauza 1,35 m. garai, 1,50m. zabal eta 0,25m. lodi da. Ekialdeko horma makurturik dagozten bi harlauzek egiten dute; haundiena 1,20m. garai, 2,30m. luze eta 0,20m. lodi da; ondokoa 1,20m. garai, 1,90m. luze eta 0,25m. lodi. Sartaldeko harlauza 2,20 m. luze, 1,50 m. garai eta 0,35 m. lodi da; hegoaldekoa berriz, 1,50 m. garai, 1,15 m. luze eta 0,25 m. lodi.**
**Harri mota: Hareharriak.**
**Egoera: Hagitz ona. Seinalizatu gabe. Harriak garbi agertzen dira, bakoitza bere tokian kokatua.**
**Ba du hala ere irekidura bat.**
**Kokapena: Munautz izeneko alderdian, mendiko magal hartsuan, Basabar lepotik eta Larremetseko bizkarretik Pagozelaira igotzen den bidetik 50 m.ra.**
**Historia: Blas Taracenak aurkitu eta industu zuen 1949an. Berak aipatu zuenez, trikuharria bere osoan aurkitu zuen,ukitu gabe kanpoko aldetik, hutsik barrenean. Trikuharriko sartaldea bakarrik, industu zutela erran zuen, iparraldeko harlauza erortzeko arriskuan zegoelakoz. Lan honetatik hau erdietsi zuen: zulakaitz baten zati bat, suharrizkoa; suharrizko lau karraskailu, bat hagitz landua.**
**Nafarroako Museoan 1973an trikuharri honetako bailiran tresnatxo batzuk ba zegozten: hiru karraskailu sinple; aizto bat; harrizko ijelki oso bat eta zatitua den bertze bat. Denak suharrizkoak.**

Descripción: Dolmen corto y abierto con un túmulo de 6 metros de diámetro que antes cubría totalmente el dolmen menos la cubierta, la cual mide 3 metros de largo, 1,70 de ancho y 0,33 de grosor. La cámara es rectangular y formada por 5 losas, midiendo 2,60 metros de largo, 2,30 de ancho y 1,70 de profundidad. La losa de cabecera mide 1,35 metros de largo, 1,50 de ancho y 0,25 de grosor. La pared del Este está formada por 2 losas, inclinadas al interior, de las que la mayor mide 1,20 de altura, 2,30 de largo y 0,20 de grosor, y la de al lado, 1,20 por 1,90 por 0,25. La losa del Oeste es de 2,20 metros de largo, 1,50 de alto y 0,35 de grosor. La losa del Sur mide 1,50 metros de alto, 1,15 de largo y 0,25 de grosor.
Material: Areniscas del lugar.
Estado: Monumental, aunque tiene una abertura está en buen estado. Sin señalizar.
Ubicación: Se encuentra en la ladera pedregosa de Muñoz a unos 50 metros y a la izquierda del camino que sube a Pagozelai, desde Basabar por el cordal de Larremets.

Historia: Encontrado y excavado por Blas Taracena en Agosto de 1949. Dijo que lo encontró entero, sin tocar por fuera, vacío su interior. Solamente excavó la parte Oeste del dolmen debido a que la losa de cámara del Norte se encontraba inclinada hacia el interior en peligro de derrumbe. En dicha excavación encontró: un trozo de punzón de silex; cuatro raspadores de silex, uno de ellos muy trabajado. En el Museo de Navarra en el año 1973 había como de este dolmen el siguiente material: tres raspadores simples, un cuchillo de silex y dos láminas de silex, una de ellas entera.

Bibliografia : Maluquer de Motes J. Notas sobre la cult.....1963.
Apellaniz J. Corpus de materiales........1973.
Barandiaran I. Prehistoria de N. 1980.
Ripa P. Monumentos megal....1990.

**LAMIZILO TRIKUHARRIA-DOLMEN.** **270**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Elizondo.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 14' 26", Latit. 43º 07' 35".
**Goi** / Altitud : 730 m.
**Aroa** / Epoca : Neolito. Brontze.

**Deskribapena: Trikuharri luze itxia. Harrizko mukurua 12 m. diametro eta metro bat garai da. Erdialdean errektangularra den hilgela, zutik eta haundiak diren sei harlauzek eratzen dute, estakia alboratua dago, trikuharriaren ipar sortalde alderdiko zati baten gainean. Sortalde-HegoSortaldera buruz orientaturik. Estalkia 3,60 m. luze eta 1,90 m. zabal da bere erdialde guzian, hertzeetan meharrago izaki eta 0,42 m. lodi da. Sartaldeko harlauza alde beretik, trikuharriko hilgela hersten duena, 2,10 m. luze, 0,85 m. zabal eta 0,33 m. lodi da. Hegoaldekoa, bertako alboko horma sortzen duena, 2,45 m. luze, 1,80 m. garai barneko aldetik, 1,10 m. kanpokotik, eta 0,26 m. lodi da. Iparraldekoa 3,82 m. luze, 1,80 m. garaien den aldean, eta 0,15 m. lodi da. Honen barneko zati bat puskatua agertzen da eta bere bi puskak estalkipean ikusten dira. Haren ondoan, alde berean, bertze harlauza ttallago bat ba dago, 0,64 m. garai, 0,60 m. zabal eta 0,29 m. lodi izaki. Iparraldeko bertzea 0,40 m. garai, 0,76 m. zabal eta 0,15 m. lodi da. Sortaldekoa, ataria izanen zena, 0,25 m. garai kanpoko aldetik eta 0,45 m. barnetik, metro bete zabal eta 0,24 m. lodi da. Hilgela 3,70 m. luze, metro bete zabal eta 2 m. garai da.**
**Harri mota: Bertako hareharriak.**
**Egoera: Ona. Seinalizatu gabe. Harriak garbi eta lerden agertzen dira. Baztango trikuharrietarik, ikusgarrienetako bat da Lamizilo.**
**Kokapena: Basabar lepotik 250 mt hegoalderuntz igo, Larremets izeneko bizkarrera eta bertako munoan dago. Zuhaitzik ez dago, bai ordea, otea eta iratzea.**
**Historia: Eulogio Zudairek aurkitu eta industu zuen 1946. urtean. Ez da indusketaren emaitzarik ezagutzen. Neurriak J. Cabodevillak eta I. Zabalzak hartuak, 2000. urtean.**

Descripción : Dolmen largo abierto, con un túmulo de piedras de 12 metros de diámetro y 1 de altura. En el centro, una cámara rectangular formada por seis grandes losas y con su cubierta corrida encima del túmulo y cubriendo sólo en parte la cámara. Orientada al Sureste, mide 3,70 metros de largo, 1 de ancho y 2 metros de alto. La cubierta tiene hoy, aunque le falta una parte, 3,60 metros de largo, 1,90 de ancho y 0,42 de ancho. La losa clavada del Oeste mide 2,10 metros de largo, 0,85 de largo y 0,33 de grosor. La del Sur, 2,45 m de largo, 1,80 de alto por el interior y 1,10 por el exterior, y 0,26 de grosor. La del Norte, 3,82 de largo, 1,80 de alto y 0,15 de grosor. La otra de su lado 0,64 de alto, 0,60 de ancho y 0,29 de grosor. La del Este, o de entrada, 0,25 de alto por el exterior y 0,45 por el interior, 1,00 de ancho y 0,24 de grosor.
Material empleado : Areniscas de la zona.
Estado : Sin señalizar, es monumental, las piedras limpias.
Ubicación : Se encuentra en el llano elevado de Larremets a unos 250 metros al Sur del collado de Basagar. Zona sin arbolado, en helechal y argoma.

Historia: Encontrado y excavado por Eulogio Zudaire en 1946. No se conocen los resultados de dicha excavación. Medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza en 2000.

Bibliografia :

| | |
|---|---|
| Zudaire E. | Prospecciones.....1949 |
| Barandiaran J. M. | El hombre prehist.......1953. |
| Elosegi J. | Prospecciones......1956. |
| Apellaniz J. | Corpus de material.....1973 |
| Ondarra F. | Nuevos monume......1976. |
| Barandiaran I. | Prehistoria de N. 1980. |
| Ripa P. | Monumentos megal.....1990. |

**LAMIZILO TUMULUA-TUMULO** **271**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lati. 2º 14' 26", Lati. 43º 07' 35".
**Goi** / Altitud : 730 m.
**Aroa** / Epoca : Eneolito. Brontze.

**Deskribapena : Harrizko mukuru biribila, 6 m. diametro eta 0,50 m. garai da. Erdikaldean sakongune txiki bat ba dago.**
**Harri mota: Bertako hareazkoak.**
**Egoera: Ona. Seinalizatu gabe. Iratzeak, oteak eta belarrak estalia.**
**Kokapena: Lamizilo trikuharritik HegoEkialderuntz, 65 metrotara.**
**Historia: 1971. urteko Azaroaren lehenean Aita Ondarrak aurkitua. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Túmulo de piedras circular que mide 6 metros de diámetro y 0,50 de alto. Se aprecia concavidad en la zona central.
Material : Areniscas del lugar.
Estado : Bueno. Sin señalizar, cubierto por helecho y argoma.
Ubicación : Se encuentra a 65 metros al Sureste del dolmen de Lamizilo.
Historia : Encontrado por el Aita Ondarra el primero de Noviembre de 1971. No se conoce excavación.

Bibliografia :

| | |
|---|---|
| Ondarra F. | Nuevos monum......1975. |
| Ripa P. | Monumentos megal.....1990. |

**ERROLAN (ROLAN) TRIKUHARRIA-DOLMEN.** **275**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 14' 27", Latit. 43º 07' 35".
**Goi** / Altitud : 717 m.
**Aroa** / Epoca : Neolito. Brontze.

**Deskribapena: Trikuharri aldeanitza. Tumulu biribila desitxuratua agertzen da egun. Sortalde, Iparralde eta Sartaldean galdu dituen mukuruko harriak, ziuraski, ondoan zegoen etxolaren egiteko, erabiliak izanen ziren. Hilgela, 7 harlauzez eraturik dago, eta beren gainean estalkia, mukuruaren iparsortaldera mugituarazia. Estalki haundia 3,55 m. luze, 2,72 m. zabal eta 0,16 / 0,38 m. lodi da. Estalkipean eta Iparsortaldean, 5 harlauza ikusten dira zutik, horietarik 3 barnealdera makurtuak. Hilgelaren erdian 3 harlauza lurrean sarturik zutik, guti agertzen direla errektangulu erdia sortzen, trikuharriak duen Hego-HegoSartaldeko norabide berean. Sartaldean harlauza bat zutik, baina ez lurrean finkaturik, 1,19 m. x 1,15 m. da. Sortaldean, berriz, bertze bi harlauzak agertzen dira zutik, aitzinekoaren antzera, eta estalkia kontzen edo kontzeko paratuak iduri dutenak, ezpaitira lurrean sarturik. Bat, barnera makurtua dagoena, 1,26 m. x 0,65/0,58 m. x 0,30 m. Bere ondokoa goitiko**

**aldean aitzinekoarekin elkarri ukituz, kanpoko aldera makurturik, 1,30 m. x 0,94 m. x 0,23 m. da. Ipar, Sortalde eta Sartaldetik hilgela inguratzen edo, 5 harri lurrean sarturik, zutik agertzen dira, horietarik haundiena 0,54 m. garai eta metro bete luze da, bertzeak txikixeagoak izanik.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera: Seinalizatu gabe. Harriak garbi dagozte. Izanen zuen haunditasunaren punttu bat bederen erakusten du oraino.**
**Kokapena: Lamizilo trikuharritik Ekialderuntz eta 200 metrotara, Burdimotx lepoan eta pagadia hasten den lekuan.**
**Historia: R. P. Zudairek aurkitua eta industua 1946. urtean. Suharrizko 3 laska berezi aurkitu zuen; egun, non dagozten ez dakigu. Neurriak J. Cabodevillak eta I. Zabalzak hartuak 2000. urtean.**

Descripción: Gran dolmen aunque muestra el túmulo muy rebajado, seguramente fueron utilizadas sus piedras para edificar la borda que hubo al lado. La cámara aparece formada por 7 losas y sobre ellas la cubierta que mide 3,55 metros de largo, 2,72 de ancho y 0,16/0,38 de grosor. Debajo de la cubierta y al Noreste se ven 5 losas tiesas, 3 de ellas inclinadas hacia el interior. En el centro de la cámara se ven 3 losas clavadas de poca altura que forman la mitad de un rectángulo, orientado como toda la cámara al Sureste. Al Oeste aparece una losa tiesa, pero no clavada, de 1,19 x 1,15 de largo. Al Este se ven otras dos losas tiesas como la anterior y parece que sujetando algo la cubierta, pues no están clavadas sino puestas posteriormente. De ellas la inclinada hacia el centro es de 1,26 x 0,65/0,58 x 0,30. La de al lado que se toca con la anterior en su parte superior mide, 1,30 x 0,94 x 0,23. Al Norte, Este y Oeste, formando parte de la cámara, 5 losas clavadas, de las que la mayor es de 0,54 metros de alta y un metro de larga, siendo el resto de menor tamaño.
Material: Areniscas del lugar.
Estado: Sin señalizar. Gracias a la cubierta todavía muestra algo de la grandeza que sin duda tuvo.
Ubicación: a 200 metros al Este del dolmen de Lamizilo, en el collado Burdimotx y donde comienza el hayedo.
Historia: Encontrado y excavado por Eulogio Zudaire en 1946, extrayendo 3 piezas de silex que hoy no sabemos donde se encuentran. Medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza en 2000.

Bibliografia :
Zudaire E. Prospecciones....1949.
Barandiaran J. M. El hombre prehistórico.....1953
Elosegi J. Prospecciones......1956.
Apellaniz J. Corpus de materiales.....1973.
Ondarra F. Nuevos monum.....1976.
Barandiaran I. Prehistoria de N. 1980.
Ripa P. Monumentos megal.....1990.

**ERROLAN HARRESPILA-CROMLECH.** **276**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 14' 27", Lat. 43º 07' 35".
**Goi** / Altitud : 717 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Hierro

**Deskribapena: Zutik dagozten 11 harriz osaturiko biribil erdia, 6 m. diametro da, tumulurik ez da agertzen. Sortaldeko harriak falta ditu. Biribilaren kanpoko aldea, bere hego mendebaldetik igarotzen den bide zabalaren ondo-ondoan aurkitzen da; harrespileko ipar-sortaldean ere harri txikiagoak ikusten dira, ingurua egiten. Barreneko aldean, 20 bat harrixka agertzen dira belar artetik. Ipar sartaldeko harria, zutik eta kanpoko alderuntz makurtu xamarra, 0,31 m. garai, 0,65 m. luze, 1,08 m. zabal eta 0,13 m. lodi da. Bere ondokoa, hego sartaldera joanez, 0,31 m. garai, 1,01 m. zabal eta 0,12 m. lodi da. Hurrengoa, norabide berean eta bide zabalaren ondoan, 0,17 m. garai, 0,29 m. zabal eta 0,07 m. lodi da. Ondokoa,hegoaldean dagoena, hau ere bide zabalaren ondoan , 0,25 m. garai, 0,40 m. zabal eta 0,18 m. lodi da. Hegoaldeko hurrengoa, pista ondoan ere, 0,32 m. garai, 0,62 m. zabal eta 0,16 m. lodi. Bide zabalaren ondoko hurrengo harria, hau ere hegoaldean, 0,40 m. garai, 0,73 m. zabal eta 0,18**

**m. lodi da. Haren ondokoa, hego sortaldean dagoena, 0,60 m. garai, 0,58 m. zabal eta 0,38 m. lodi da. Norabide bereko hurrengoa 0,14 m. garai, 0,43 m. zabal eta 0,09 m. lodi.**
**Gainontzeko guziak, ttallagoak dira. Sakongunerik ez. Pentsa daiteke galduak dituen harriak harrespiletik bi metrora agertzen den harresia egiteko erabiliak izanen zirela.**
**Harri mota: Bertako hareazkoak.**
**Egoera : Arriskuan dago, ondotik doan bide zabalak ukitzen baitu. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena : Errolan trikuharritik metro batzuetara, ipar sartaldera buruz; bide zabalaz bertzealdean.**
**Historia : Eulogio Zudairek aurkitua 1946an. Ez da indusketarik ezagutzen. Neurriak J. Cabodevillak eta I. Zabalzak hartuak 2000. urtean.**

Descripción: Sólo queda la mitad de un círculo de 6 metros de diámetro formado hoy por 11 ortostatos, teniendo perdidas las piedras de su parte Este. Al pasar la pista tocándolo por su parte Sur se puede apreciar parte de la estructura interior. En el interior no se ve túmulo, sí 20 piedras. La piedra del Noroeste, algo inclinada al interior, mide 0,31 metros de alto, 0,65 de largo, 1,08 de anchura y 0,13 de grosor. A su lado al Suroeste otra de 0,31 x 1,01 x 0,12. La siguiente tocada por la pista, 0,17 x 0,29 x 0,07. La siguiente al Sur, 0,25 x 0,40 x 0,18. La siguiente del Sur, 0,32 x 0,62 x 0,16. La siguiente 0,40 x 0,73 x 0,18. Al Sureste una de 0,60 x 058 x 0,38. La siguiente 0,14 x 0,43 x 0,09. Las restantes son de menor tamaño. No se aprecia cavidad central. Cabe pensar que las piedras que faltan fueron utilizadas para construir la pared situada a unos dos metros.
Material: Areniscas del lugar.
Estado: Se encuentra en peligro, por la pista que lo toca. Sin señalizar. Le falta la mitad.
Ubicación: Se encuentra a pocos metros del dolmen de Rolan hacia el Noroeste, al otro lado de la pista.
Historia: Encontrado por Eulogio Zudaire en 1946. No se conoce excavación. Medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza en 2000.

Bibliografia : Zudaire E. Pirineos. 1949.
Ondarra F. Nuevos monument.....1976.
Ripa P. Monum.....1990.

**ERROLAN TUMULUA-TÚMULO.** **277**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan .
**Koordinatuak** / Coordenadas : Lonj. 2º 14' 27", Lati. 43º 07' 35".
**Goi** / Altitud : 720 m.
**Aroa** / Epoca : Eneolito. Brontze.

**Deskribapena: Harrizko mukuru biribila, 4,50 m. diametro eta 0,30 garai. Erdian sakongunea ba du.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera: Ona. Iratzez, otez eta iñarrez estalia. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena: Rolan trikuharritik 70 metrotara, Lamizilorantz joanez.**
**Historia: 1971. urtean Aita Ondarrak aurkitu zuen. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción: Túmulo circular de piedras que mide 4,50 metros de diámetro y 0,30 de alto. En su parte central se ve una depresión.
Material: Areniscas del lugar.
Estado: Bueno. Sin señalizar. Cubierto de helecho y argoma.
Ubicación: Se encuentra a 70 metros del dolmen de Rolan yendo hacia Lamizilo.
Historia: Encontrado por el Aita Ondarra en el 1971. No se conoce excavación.

Bibliografia :
Ondarra F. Nuevos monumentos......1976.

## Sektorea – Sector 9 BURGA - SOALAR - OIZA

**Megalitotegi hau Baztango bihotzean kokatzen da eta, ondoan dauden Iñarbegi-Basabar eta Urruxkako guneekin batera, Eneolitiko-Brontze Aroko trikuharriak nagusi diren gune haundi bat osatzen du.**

Estación megalítica situada en el centro de Baztan que, junto a las estaciones próximas de Iñarbegi-Basabar y Urruxka, conforma una gran zona unitaria con predominio de los grandes dólmenes de la Edad del Calcolítico-Bronce.

**BASABAR ZUTARRI ETZANA - MENHIR TUMBADO. 279**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.Elbete.Elizondo.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 14' 15", Latit. 43º 07' 43".
**Goi** / Altitud : 700 m.
**Aroa** / Epoca : Zehaztugabea.

**Deskribapena: Harri zolaren gainean luze etzanik dagoen harri haundia. Lur gainean dagoen zatiaren neurriak: 3,35 m. luze, 1,20 /1,10 /1,05 /0,90 /0,75 zabal eta 0,50 lodi dira. Ba dira bere ondoan bertze bi harri puskak; Aita Ondarraren araberaz, hasieran denak bloke bera osatuko zuten, gero egurrezko ziriak sartu eta bustiz, hormaren eraginez monolitoa sortuko zuketenak.**
**Harri mota: Bertako hareazkoa.**
**Egoera: Ona. Seinalizatu gabe. Iratzeak eta belarrak estaltzen du.**
**Kokapena: Basabar lepotik Iparralderuntz, 100 m-ra eta argiaren poste batetik ezkerrera.**
**Historia: 1986ko Martxoaren 22an, Aita Frantzisko Ondarrak aurkitu eta datuak 29an hartu zituen. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción: Monolito tumbado encima de una gran roca roca. Las medidas del pedazo sobre el suelo: 3,35 metros de largo,1,20/1,10/1,05/0,90/0,75 de ancho y 0,50 de grosor. A su lado vemos otros dos bloques de piedra y, según Aita Ondarra, serían parte de una sóla pieza en la que se introdujeron cuñas de madera luego mojadas; posteriormente la acción del hielo la partiría para conseguir el menhir.
Material: Arenisca de la zona.
Estado: Bueno. Sin señalizar. Lo cubren el helechal y la hierba.
Ubicación: a unos 100 metros del collado de Basagar, hacia el Norte, a la izquierda de un poste de luz.
Historia: Encontrado y medido por el Aita Ondarra el 22 de Marzo de 1986. No se conoce excavación.

Bibliografia :
Ondarra F. Edestiaurreko oroitarri berriak. 1990.
Ripa P. Monumentos megal.......1990.

**BURGAKO TRIKUHARRIA-DOLMEN. 280**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Elizondo.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 14' ºº", Latit. 43º 07' 58".
**Goi** / Altitud : 750 m.
**Aroa** / Epoca : Neolito. Brontze.

**Deskribapena: Trikuharriaren harrizko tontor biribila, 8 m. diametroa. Bere ipar eta sortaldeko zatiak metro bateko garaia dauka, aise apalagoa izanik bertze aldeetan. Hiru harlauzek irauten dute zutik; gainontzekoak eta estalkia galduak dira. Haundiena, sortaldekoa, 1,00 m. garai, 2,22 m. luze eta 0,38/0,30/0,24 m. lodi da. Hegoaldekoa, haundienari jarraipena ematen diona, 0,42 m. garai, 0,39 m. zabal eta 0,09 m. lodi da. Iparraldekoa, haundienarekin angelu zuzena sortzen duena, 0,50 m. garai, 0,87 m. luze eta 0,11 m. lodi da.**
**Harri mota: Bertako hareazkoak.**
**Egoera: Harriak garbi ikusten dira. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena: Basabarko lepotik Iparralderuntz 400 mt-ara, bizkarrean bertan.**
**Historia: Tomas Lopez Sellesek aurkitua 1964. urtean. Ez da indusketarik ezagutzen. Neurriak 2002 urteko Otsailean J. Cabodevillak eta I. Zabalzak hartuak .**

Descripción: Dolmen con un túmulo circular de piedras de 8 metros de diámetro, siendo de 1 metro de altura en su parte Noreste y bastante mas rebajado en el resto. Tiene perdida la cubierta y quedan tres losas en pie formando la cámara. La del Este, la mayor, mide 1,00 metros de altura, 2,22 de largo y 0,38/ 0,30/ 0,24 de grosor. La del Sur, siguiente de la anterior mide 0,42 de alto, 0,39 de ancho y 0,09 de grosor. La del Norte, formando un ángulo recto con la mayor, mide 0,50 metros de alto, 0,87 de largo y 0,11 de grueso.
Material: Areniscas del lugar.
Estado: Sin señalizar. Las losas se ven limpias.
Ubicación: a 400 mt del collado de Basabar, hacia el Norte.
Historia: Encontrado por Tomás Lopez Selles en el 1964. No se conoce excavación. Medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza en Febrero del 2002.

Bibliografia :

Lopez Selles T. Contribución ........1963.
Apellaniz J. Corpus de materiales 1973.
Barandiaran I. Prehistoria de N. 1980.
Ondarra F. Edestiaurreko oroitarri....1990.
Ripa P. Monumentos megal.........1990.